

**EUSKO JAURLARITZAREN FINANTZA-POLITIKA BERRIAREN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN DE LA NUEVA POLÍTICA FINANCIERA DEL GOBIERNO VASCO**

2018-07-16 Lehendakaritza 16-07-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Ahaldun nagusia, sailburuok, herri agintariok, Finantza erakundeetako ordezkariok, jaun andreok, egun on.

Garapen ekonomikoa sendotzen ari da eta partekatzen dugun helburua da sendotasun hori indartzen jarraitzea. Badakigu elkarlanaren bidez egin beharreko ibilbidea dela eta gaur horren adibide eredugarria aurkezten dugu.

Proiektu honetan parte hartu duzuen erakunde publiko eta pribatuen ekarpena eskertu eta aitortu nahi dut. Hilabete hauetan enpresa munduari gertutasuna erakutsi diozue eta benetako beharrei erantzun egokiak eskaintzeko ahalmena ere. Eskerrik asko benetan.

Agradezco la labor institucional conjunta y la colaboración de las Instituciones financieras hoy aquí presentes para ofrecer este nuevo diseño de la política financiera y de los instrumentos que van a suponer nuevas oportunidades para mejorar la financiación de la empresa.

Agradezco la participación en el nuevo Fondo de capital riesgo de las Diputaciones Forales, entidades financieras, inversores privados y Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Habéis dedicado tiempo y esfuerzo de cooperación para preparar este nuevo modelo de política financiera.

Vamos a contar ahora con un nuevo Fondo de hasta 250 millones de euros para financiar proyectos estratégicos de inversión, arraigar empresas tractoras y favorecer la innovación e internacionalización en el tejido productivo de Euskadi.

Elkarrekin nahi genuen helburua elkarrekin bete dugu. Akordio honi esker gure enpresek behar duten finantziazioa eskurago izango dute. Honekin batera, 250 milioi euroetako Funts berri bat jarri dugu abian inbertsioak areagotzeko, enpresak errotzeko, berrikuntza eta nazioartekotzea bultzatzeko. Ekonomia berpiztea eta enplegua sustatzea guztion helburua da. Elkarrekin erantzun berri bat osatu eta eskaini dugu. Erantzun honi esker enplegua mantentzen saiatzen gara eta aukera berriak sortzen laguntzen ari gara.

Mi agradecimiento especial a las Instituciones financieras que siempre nos acompañan en este proceso de reordenación y mejora.

Este es el modelo para garantizar un crecimiento económico sostenible: trabajo conjunto, colaboración y acuerdo al servicio de la inversión y la economía productiva.

Garantizar la adecuada financiación de las empresas es una base fundamental para generar inversión, actividad y oportunidades de empleo, la prioridad a la que dedicamos todos los esfuerzos.

Somos conscientes de las dificultades que entraña la inversión y de la necesidad de reactivar los instrumentos de financiación. Muy especialmente para orientarlos de manera más efectiva a ofrecer soluciones a las necesidades de las empresas.

El Gobierno Vasco demanda confianza y ofrece confianza. Lo hacemos de forma compartida. Vamos a seguir ofreciendo capital, garantías y préstamos a través de mecanismos de colaboración con las instituciones financieras para que fluya el crédito a las empresas, se generen nuevos proyectos y se facilite la inversión productiva.

Vamos a seguir invirtiendo en la mejora del ecosistema económico porque sabemos que estabilidad, solvencia y confianza son la mejor garantía que podemos ofrecer como País.

Eusko Jaurlaritzak, erakunde guztiekin batera, euskal ekosistema ekonomikoa sendotzen eta indartzen jarraitzeko konpromisoa dauka. Badakigu egonkortasuna, kaudimena eta konfiantza ezinbesteko aldagaiak direla.

Ekonomia berpiztea guztion zeregina da, baina jakin badakigu enpresaren bidez gauzatzen dela.

Eusko Jaurlaritzaren ereduaren oinarria zorroztasuna, bermea eta hazkundea dira. Horregatik hartu behar dugu parte eta horregatik eskaini behar dugu gure laguntza. Azken finean, diru iturri berri honen bidez enpresa eta langile askoren enplegua sustatzen ari gara.

El futuro de Euskadi pasa por la colaboración. Hoy, gracias a este nuevo modelo de política financiera, el Gobierno Vasco y las instituciones públicas –las Diputaciones Forales- estamos trasladando al mundo de la empresa el apoyo del conjunto de la sociedad vasca.

Esa misma sociedad demanda también al mundo de la empresa que mantenga el compromiso con la actividad y, especialmente, el empleo, en estos momentos de crecimiento y también de incertidumbre.

La crisis ha sido larga y profunda, estamos saliendo, y lo importante es hacerlo en la buena dirección, invirtiendo y favoreciendo la competitividad en un escenario más abierto y global. Este nuevo modelo de política financiera se pone, en definitiva, al

servicio de garantizar el presente y el futuro de nuestras empresas, el presente y el futuro del empleo. Este es un Objetivo de País y es una prioridad compartida.

“Auzolana” da gure eredia eta gaur enpresa munduarentzako ekarpen positibo bat aurkezten eta eskaintzen dugu.

Jarrai dezagun, beraz, ibilbide honetan inbertsioak behar duen gertuko kudeaketa zorrotza eta egonkorra eskaintzen. Hori da bidea lehiakortasuna eta garapen iraunkorra ziurtatzeko.

Eta bukatzeko Jaurlaritza osoaren izenean, bai gainontzeko Erakunde Publikoei, Aldundiei, bereziki eta baita Erakunde Finanziaroei baita EPSV-etako ordezkarioi baita beste eragile batzuei, nire esker ona adierazten dizuet benetan.

Eskerrik asko.